

8. Funtsezko Baliabideak

Baliabide Fisikoak:

Gure kasuan lokal bat beharko dugu orgatxoak osatzeko eta bezeroekin harremanetan jartzeko. Lokalak 42m² neurtzen ditu eta 600 euro ordaindu beharko ditugu hilabetean. Makinei dagokionez, lau ordenagailu erosiko ditugu langileentzat bakoitzak 300 euro balio duelarik. Horretaz gain, lau mahai erosiko ditugu 110 eurokoak eta horrekin batera lau aulki 35 eurokoak. Ordenagailuak erabil dezagun beharrezkoa izango da Interneta kontratatzea eta horretarako router bat jarriko dugu lokalean.

Baliabide intelektualak:

Bertan azaldu beharrezko atalak hauek izango liratezke: marka, informazio pribatua, patenteak, egile-eskubideak, elkarteak eta bezeroen datu baseak.

Gure kasuan software bat integratuta duelarik panel bat sortu dugunez, patentea egitea erregistratzeak 72€ balioko ditu. Bestalde, web orri bat izango dugu gure bezeroak hornitzeko eta hura oso itxura onekoa eta argia izango da erabiltzeko. Era berean, gure panela sortzeko beharrezkoa izango da lan intelektualaren kontratazioa, zehazki, *Factory Apps*-en kontratazioa app-aren software-a sorrarazteko eta ezarri nahi dizkiogun ezaugarri guztiak ezartzeko.

Giza-baliabideak:

Giza baliabideak dira beharrezkoak diren langileak. Gure kasuan laurok izango gara langileak. Langile bakoitza hainbat supermerkatuz arduratuko da, eta proiektua aurrera doan heinean langile gehiago kontratatuko ditugu beharrezkoa bada.

Finantza-baliabideak:

Proiektua martxan jartzeko behar diren aktiboen prezio totala da. Gure kasuan baliabide fisikoen aldetik, lokala 600€ hilabetero, 4 ordenagailu 300€ bakoitzak, 4 mahai 110€ bakoitzak eta horrekin batera lau aulki 35 eurokoak, eta telefonika konpainiaren zuntz-optikoa 80€ hilabetean; guztira 1960€ Baliabide intelektualei dagokienez, patentea egiteak eta logoa erregistratzeak 772€ guztira. Giza baliabideen aldetik, langileen soldata ordaintzeko 5800€ beharko ditugu.